

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Iruña Okako hiri antolamendurako plan orokorraren lehenengo aldaketa puntualari

Udalbatzak, 2026ko uztailaren 13an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Iruña Okako hiri antolamendurako plan orokorraren 1. aldaketa puntualari. Aldaketa horren helburua da Subillabide Industrialdeko eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza bereziak aldatzea, b11* 11-4 lurzatiaren antolamendu xehatua b11* 11-6 lurzatiari gehitzea, dagoeneko eraldatuta dagoen lurzoru bati erabilgarritasuna emateko eta dagoeneko antropizatuta dauden lurzoruak aprobetxatzeko eta industria erabilerarako baldintza normaletan erabiltzeko, eta horrela lurzoru urbanizatu gehiago sortzea saihestu.

Agiri horiek jendaurrean jarriko dira, iragarkia argitaratuz ALHAOn, Arabako Lurralde Historikoko egunkari salduenetako batean eta udalaren iragarki taulan, hilabetez, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita. Era berean, udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da: <https://www.irunadeoca.com/>.

Epe horretan, interesdunek espedienteak aztertu ahal izango dituzte udal bulegoetan (Jose Antonio Agirre Lehendakariaren Parkea 1, Iruña Oka), astelehenetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara, eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eten egiten da, gehienez ere urtebetez, eremu edo erabilera jakin batzuetarako mota guztietako hirigintza onespén, baimen eta lizentziak ematea.

Langraiz Oka, 2026ko abuztuaren 5a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ